

Media pare bat

Etxera heldu berria nintzen, bazkaria prestatzeko denbora justuarekin. Txirrinak us tekabearen harrapatu ninduen, senarra alabatxoaren bila joan baitzen. Eskale bat izango zelakoan, mahaia atontzen jarraitu nuen. Txirrinak berriro jo zuen motz, temati bezain lotsati. Goiko solairuko bizilaguna zen, Maria Luisa: hirurogeita hamar urte pasatxoko emakume beti dotore eta irribarretsua, oraindik aitua eta errubia, gaztetako edertasuna mantentzen zuena.

«Kaixo, Margarita», agurtu ninduen eskuekin jolasean, urduri. «Barkatu gogaitzea, baina gaur goizean, arropa eskegitzean, media pare bat erori zait. Ez zenuen, kasualitatez, zure balkoian aurkituko?».

«Ezetz esango nuke, baina emadazu segundo bat». Balkoira jo, begirada azkar bat botu eta ezetzarekin itzuli nintzen. «Ziur aski kalera erori da», esan nion nire presa ezkutatu nahian.

«Ez, ez: espaloian bilatzen ibili naiz. Ez bada gehiegi molestatazea... galdetuko diozu senarrari? Agian berak...».

«Lasai; galdetuko diot. Aurkitzen badugu, igoko dizugu; ez kezkatu».

«Mila esker, zuek beti bezain atsegin. Bide batez, Lidiaren urtebetetzea laster da, ezta?».

«Abuztuaren 19an 5 urte beteiko ditu», erantzun nion irribarrez. Urtero, puntualki etortzen zitzaigun poltsa bete gozoki.

«Bada, oparia prestatzen hasi beharko dut; badakizu nire adinean gauzak erraz ahazten direla», amaitu zuen irribarre jatorra eginez.

Aste bete geroxeago, ordu berean, berriz txirrina eta, ondotik, Maria Luisa. Apurtxo bat lotsatuta, ea media pare bat aurkitu nuen galdetu zidan.

«Media pare bat?», errepikatuta nuen harrirituta, zer esan jakin gabe senarrari galdetzea ahaztu egin baitzizaidan.

Berak baietz, goizean erori zitzaiola, aurreko hartako beste media pare hura aipatu ere egin gabe. Aldi honetan, loreen artean ere begiratu nuen, baina aldi honetan ere, alferrik. Nire zain itxaropentsu nuen atean, oraindik urduri eta gorrituta. «Sentitzen dut,

(Sodupe, Bizkaia, 1977) Izen Yoseba



Idazle eta itzultzailea, batez ere narratiba eta poesia lantzen du. 22 urterekin Vienara (Austria) joan zen eta zazpi urtez aritu zen bertako zenbait unibertsitateetan Informatika irakasle. Egun, Zarautzen bizi da eta Deustuko Unibertsitatean (Donostian) egiten du lan.

Maria Luisa, baina ez dut ezer topatu. Non sartu ote dira».


Keinu tristea egin zuen ahoaz, umeek beraiei agindutakoa helitzen ez zaienean bezala. «Senarrari galdetuko diozu, mesedez? Badaezpada, badakizu. Eta barkatu molestatu izana; emaiouzu muxu bat alabatxoari nire partez. Laster izango da bere urtebetetzea, ezta?».

«Hilabete falta zaio eta irrikitan dago jada», erantzun nion irribarre egiten saiatzen.

«Bada, gozokiak prestatuko ditut. Beno, *guapa*, ez zaitut gehiago entretenituko».

Atea itxi nuen buruan mila kezka nituela. Eta, zurrumbilo horretan, astiro-astiro hitz bat gailendu zen nigan: Alzheimer.

Aratsaldean, mertzeria baten paretik pasatzean, Maria Luisaz oroitu nintzen eta bi aldiz pentsatu gabe, media pare bat eroste-ko asmoarekin sartu egin nintzen.



Ordaindu ostean, kutxa poltsan gorde eta zalantzakor atera nintzen. Egun batzuek izan nuen media pare hori tiradera batean, eskura, baina Maria Luisa itzultzen ez zela ikusita, trasteen armairuan utzi nuen.

Gau horretan, txirrinak bihotzeko zirrara eragin zidan. Egongela duda-mudan zeharkatu eta atea ireki nuen: Maria Luisak, ea media pare bat balkoian aurkitu nuen galdetu zidan hirugarrengoz. Aurregian itxaropena antzematen zitzaion: niganako konfiantza.

Sukaldera joatean senarrak begiekin zer gertatzen zen galdetu zidan eta, lasaitzeko, keinu bat egin nion: Maria Luisa eta bion arteko sekretua izango zen. Media berriekin itzuli eta ikusi zituenean aurpegia argitu zitzaion; zoriontasun horek zalantza guztiak baztertu zizkidan. Media pareta txabusinaren poltsiko batean sartu zuen baretuta eta irribarretsu, pisu handi bat gainetik kendu izan balu bezala.

«Lidiaren urtebetetzea laster izango da, ezta?», eta odola hoztu zitzaidan. Arnasa sakon hartu

eta alegia, sinesgarri izateko, osorik kontatu behar zela jabetu nintzen. Irribarra ez galtzen saiatuz, hila-bete falta zela erantzun nion. Ez nuen andre gaixoak dirua gozokietan xahutzerik nahi.

Hurrengoan ere, handik lauzpabost egunetara, media pare berri bat eman eta Lidiaren urtebetetzearako hilabete falta zela esan nion. Ordainetan, esker oneko irribarre zabala. Abuztuaren 19a heldu eta festa txiki bat antolatu genuen alabatxoaren eskolako lagunekin. Txirrinak jotzen zuen bakoitzean beldurez joaten nintzen atea irekitzera. Halere, ez zen arratsalde horretan agertu, hurrengo goizean baizik, betiko moduan urduri eta adeitsu.

«Lidiaren urtebetetzea aste honetan da?», galdetu zidan media pare berria eskuan.

Eta gizon ez leial baten gisara eutsi nion gezurrari, eraikia nuen naizezko gaztelua ufada xume batez lurrera ez botatzeko asmotan-edo. Berrio ondo bideratu banuen ere, mareari irabazitako hondartza segituan galtzen da: Maria Luisa, betidanik hain jatorra eta adeitsu zen alabatxoarekin, non beldur izaten hasi nintzen. Eta atarian edo eskaileretan elkar ikusten bagenuen? Beti berdin, kasualitatez, umetxoaz poztarren, ez ote zion Lidiari berari galdetuko urtebetetzea noiz izango zuen?

Era berean, nahigabe hasi nintzen Lidiarekin etxera ia korrika igotzen; lehen, eskailerako mailak ingelesez kontatzen igotzen ginen, astiro eta barre algaraka. Nahigabe ere, alabarekin nindoanean, bizilagunekiko izan nintzakeen elkarrizketak laburtu edo erabat moztu nituen. Agur azkarra eta eskutik tiraka gora.

Bitartean, Maria Luisaren bisitak urritu egin ziren. Gainera, azken aldietan nekaturu sumatu nuen, zahartua. Begi-zulo nabariak eta aurpegia horixka. Eta eskuak: es-



ku argaletan zainak egunez egun ageriago, azalaren azpian hezur fin eta zain horiek besterik ez baleude bezala. Alabaina, beti, beti ordaintzen zidan esker oneko irribarre zabal batekin. Horek, gezurak merezi zuela erakusten zidan.

Anbulantzia ikusi eta berehala Maria Luisaz gogoratu nintzen; aita gaixotu ostean ere, gauza bera gertatu zitzaidan: bizi ginen inguruan, ambulanzia bakoitzak aita barruan zihoala pentsarazten zidan. Egun batean, aitaren gorpua eroana nire aurretik pasa zen, agurtzeko denborarik gabe.

Maria Luisa ahoz gora zegoen esku-ohetan ambulantziara sartzen ari zirenean: begi tristeak, zerura begira, ahoan arnas hartzeko maskara bat eta atzamarrekin esku-azpi ukitzen, agian bizirik zegoela ziurtatzeko. Aldi honetan ez nuen kontzientzia txarrik, pertsona hori zoriontsu egiten saiatu nintzelako; hala eta guztiz ere, ezin nion negarrari eutsi: batzuetan, herioa aurrez aurre ikusten da.

Hurrengo hilabeteetan, kostatu bazitzaidan ere, nire burua bizilagunekin astiro-astiro berriro normal jokatzera behartu nuen. Kontrakak ez zuen zentzurik; lehenago ere ez. Egunak joan, egunak eto-

«Ama, zuk beti esaten didazu opariak jasotzean zoriontsu sentitu behar garela»

ri, Maria Luisaren semearekin topo egin nuen behin. Amaren ez-palekoa, berehala hasi ginen hizketan. «Azken momentura arte burua argi-argi izan zuen. Minbizi horregatik izan ez balitz, gure artean ibiliko zen oraindik».

«Emakume benetan izugarria zen», erantzun nion entzun berri nuena ezin ulerturik. Edo ulertu nahi ezinik.

«Bai, halaxe zen», eta pentsakor begiratu zuen lurrera. «Bazenekien makina bat gozoki pakete gordeta zituela zure alabatxorentzat? Apalategi baten gainean daude errenkadan; hasieran ume askorentzat izango zirela uste nuen, baina guztietan 'Zorionak Lidia' ipintzen du».

Gaur beheko solairuko auzokideak urte honetan eroritako media pare batzuk ekarri dizkit. Dirudienez, bere terrazan gelditzen ziren zintzilikatuta. Barkamena eskatu dit lehenago etorri ez izanagatik; azkenean, horregatik edo hartatik, gugana igotzeko aukera beti atzeratzen zitzaion. Lidia, media pare artean ni negarrez ikusita, hurbildu egin da muxu goxo-goxo emateko: «Ama, zuk beti esaten didazu opariak jasotzean zoriontsu sentitu behar garela».